

Antoine d'Abbadie eta mende amaierako mugimendu euskaltzalea

(Abbadie and the cultural "Basquism" of the end of the 19th century)

Valverde, Lola*

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia

Miraconcha, 48

20007 Donostia

* Eusko Ikaskuntza

*Antoine Thompson d'Abbadieren bizitzak XIX. mende osoa zeharkatu zuen eta bertan erabat txertaturik ageri da: zientziakiko interesagatik, bidaiatzeko grinagatik eta haren mezenas egoeragatik. Euskal Herriko hizkuntza eta kultura-
ren iraupena izan zen haren kezka nagusietariko bat eta horiek haren jardueraren eta diruaren parte bat beretuko
zuten. Lore Jokoen sortzailea eta Ipar Euskal Herrian haien bultzatzaile nagusia izateaz gain, Abbadieren jarduera guz-
tiz garrantzitsua gertatu zen euskal kulturaren berpizkundean. Izan ere, harremanetan jarri zituen lehen aldiz Iparalde
eta Hegoaldeko euskaltzaleak hizkuntzalaritza lan sistematiko baten inguruan eta Lore Jokoa edo Euskal Jaiak
Hegoaldean sartu zituen, berau Asociación Euskara de Navarra izenekoarekin lankidetzan.*

Giltz-hitzak: Antoine Thompson d'Abbadie. Lore Jokoa. Euskal Jaiak. Euskal Kultura Berpizkundera.

*Antoine d'Abbadie, cuya vida recorre todo el siglo XIX, se integra plenamente en él, por su interés por las
Ciencias, su afán viajero y su posición de mecenas. Una de sus principales preocupaciones consistió en la conserva-
ción de la lengua y cultura de Euskal Herria las cuales ocuparon parte de su dedicación y des u dinero. Además de
por haber sido el iniciador de los Juegos Florales y su principal impulsor en las provincias vascas del Norte, Abbadie
ocupa un lugar central en el Renacimiento cultural vasco también por haber puesto en comunicación por primera vez
en torno a un trabajo lingüístico sistemático a euskérologos de las provincias vascas del Norte y Sur, en torno al
Príncipe Luis Luciano Bonaparte y por haber introducido los Juegos Florales o fiestas Euskaras en el Sur del País, en
colaboración con la Asociación Euskara de Navarra.*

Palabras Clave: Antoine d'Abbadie. Juegos Florales. Fiestas Euskaras. Renacimiento cultural vasco.

*Antoine d'Abbadie, qui vécut tout au long du XIXème siècle, s'y intègre pleinement par son intérêt pour les
Sciences, sa passion des voyages et sa position de mécène. L'une de ses principales préoccupations est la conserva-
tion de la langue et de la culture d'Euskal Herria, lesquelles occupèrent une partie de son temps et de son argent. En
plus d'avoir été l'instigateur des Jeux Floraux et leur principal promoteur dans les provinces basque du Nord, Abbadie
occupe également une position centrale au sein de la Renaissance culturelle basque pour avoir réuni, pour la première
fois sur un travail linguistique systématique, des euskérologues des provinces basques du Nord et du Sud autour du
Prince Louis Lucien Bonaparte et pour avoir introduit les Jeux Floraux ou Fêtes Euskaras dans le Sud du Pays, en
collaboration avec l'Association Euskara de Navarre.*

Mots Clés: Antoine d'Abbadie. Jeux Floraux. Fêtes Euskaras. Renaissance culturelle basque.

1. ANTOINE D'ABBADIE BERE GARAIAIN

Antoine d'Abbadierena den bezalako nortasun anitz eta aberatsak bideratu du gaur haren inguruan jakintzaren hainbat adarretako jakinzale eta ikertzaile biltzea Kongresu honetara, eta horrek ezaugarri bereziak ematen dizkio Kongresuari. Aitortu beharra dut orain artean ez nuela inoiz esku hartu euskaralariak, Etiopiako hizkuntzetan adituak, fisikariak eta astronomoak, besteak beste, hartzen dituen inongo Kongresutan.

Gaiari zuzen heldu aurretik, Antoine d'Abbadie bizi izan zen garaian kokatu beharrean aurkitzen naiz, larriki bada ere, eta abiatuko gara garaiko gizona izan zela esanez. Baieztapen hori egin ondoren azaldu beharko genuke zer adierazi nahi dugun horren bidez. Izan ere, ez ote gara denok, gure garaiko gizon-emakumeak, hau da, bizitzea egokitu zaigun garaikoak eta ez bestetakoak? Antoine d'Abbadie, hain bizitza eta obra bereziko gizon hura, bere garaiko gizonaren paradigma gisa aurkez daiteke gure begien aurrean?

Abbadie d'Arrasten bizitza luzea osorik igaro zen XIX. mende hori hobekien definitzen duten ezaugarriekin bat datoz. Jakintzaren, zientzia ezagupenaren zaletu sutsua izan zen. Zientzia elkarteek, gobernuek bermaturiko Akademiek, aurkikuntza bizitzeko arrazoiak egin zuten Abbadie bezalako pertsonak biltzen zituzten beren baitan. Alabaina, XIX. mendeko mendebaleko munduari dagozkion bi fenomeno garrantzitsuenak, zientzia-sukar horrekin mamiki loturik daude, elkarren artean ere loturik daudela. Haietako lehena, industrializazioa, iraultza teknologikoa dela medio, produkzioaren hobekuntza eta gehikuntzari aplikatzekoak ziren aurrerapenen goseak zegoen. Bigarrena, Europak burutua zuen munduko kolonizazioa, Asia eta Afrikan batez ere. Mundua haren eskuetan dago. Lehengaiak lortu eta merkatuak zabaldu beharrak ezinbestean hartarako bultzatzen bazuen ere, aurretik zientzilariak, Geografia Elkarteak eta mendebaldarrentzat ezezagunak ziren eremuen esploratzaileak zihoazen; lurralde zapaldu berri horien artean Afrika zen lurralderik gogokoena eta ezezagunaren bila abiatzen ziren abenturazaleei ustekaberik gehien ematen ziena. Lehenik fauna eta flora berriarekin harremanetan jartzea dago, eta ondoren, bertako biztanle ezezagunekin, haien hizkuntzekin, ohiturekin, antolakuntza politikoarekin eta sozialarekin. Dena ikerketa, sailkapen eta konparazio-gai da. Kartografiak gorakada eta garapen handia egin zuen eta zientzia-mailara iritsi zen. Esploratzaileekin, haien arrastoen ondotik batzuetan eta haiekin batera bestetan, misiolariak zihoazen, eta haien lana erabakiorra gertatu zen erlijioaren bidez eremu haietako biztanleak mendebaleko moldeetara jartzeko, haien mundu-ikuskerara aldatzeko, ideia berriak sartzeko. Dударik gabe, Abbadie bere garaiko zientzilariaren ereduari zegokion; zientzia esperimentalei guztiz atxikia zen eta horrek jakinmina erakartzen zuten fenomeno guztiak neurtu, kontatu eta egiaztatzea eramaten zuen, bai eta ordura arte ezezaguna eta urruna zen mundu zatiak ezagutzera ere.

Bada, halaber, garaiko izipirituari dagokion Abbadieren beste alderdi bat ere: mezenas izan zen. Bere espedizioek, bidaiek eta gainerako ikerketek eragindako gastuak ordaintzeaz gain, diru kopuru handiak xahutu zituen bultzatu beharra garrantzitsua iruditzen zitzaizkion jarduerak finantzatzuz, funtsean, bere obra handia izan ziren Lore Jokoetan, baina horiek, jakina, geroago ukitu ditugu.

Lan egin beharrik ez eta bere dirutza gogoko bizitza bizitzera zuzentzen duen errendadunaren irudi hori, ondasunak bidaia eta espedizioak finantzatzeko, zientzia jakinmina asetzeko, euskara bultzatzeko eta Euskal Herriko ohiturak ezagutu eta zabaltzeko erabiliz Abbadiaren kasuan, lehenengo garaiei dagokie, egun banakako mezenas horien eremua behin betiko zabaldu baita erakunde publikoek, instituzioek eta baita marketing eta irudiaz halako ikuskera bat duten enpresek beretu dutenez geroztik. XIX. mendean, alabaina, Unibertsitateetatik at, zientzia eta kultura, oro har, diru-sarrerak izateko lan egin beharrik ez

zuten gizabanakoek landu eta bultzatzen zituzten. XVIII. mendera arte, kultura klase pribilegiatuen eskuetan zegoen ia erabat, hau da, elizgizonen eta aristokraziaren gain; XIX. mendean burgesia gizarte-klase berri gisa azaltzean, beraren kide asko zientzia eta kulturaren munduko eszenategian azaldu eta aldatu egin zuten, bai alor profesioaletik —medikuak, abokatuak, kazetariak, soziologoak, ingeniariak, kimikariak eta abar luzea— eta bai mezenas egoeratik ere.

Abbadie, beraz, bere garaikoa da, hala esploratzaile, zientzilari eta Akademietako kidea den aldetik nola euskararen eragile eta Euskal Herriko ohitura tradizionalen zaintzailea den aldetik, desagertzen ez ikusteko beraien praktika mantendu eta ezagutarazten saiatu zelarik. Industrializazioa gizarte tradizionalen oinarriak pitzatzen ari zen eta, epe aski laburrian, espero izatekoa zen haien suntsipena. Egoera horrek kontserbazioaren aldeko mugimendua eragin zuen Europan, folklorismoaren garapena ekarriz; heriotz mehatxuak jotako herri jakintza hura biltzea zen folkloristen helburua. Mehatxupeko jakintza horien artean, nazio-hizkuntzaren mailara ez iritsitako hizkuntzak ez ziren garrantzi gutxienekoak, hau da, XIX. mendeko estatu berrien hizkuntza-ofizialtasuna lortu ez zutenak gainbehera azkar edo geldia egiten hasiak ziren, goian aipatu bezala desagertzen hasitako nekazaritza mundu tradizionalari atxikiak zirelarik.

Euskara hizkuntza horietariko bat zen eta, horri haren etorkiaren iluna, antzinatea eta originaltasuna gaineratuz, esplika daiteke folklore-zaleen artean eta batez ere hizkuntzalari profesionalen eta zaleen artean euskararekiko sortu zen interes izugarria; izan ere, haietariko askok arretaz ekin zioten euskararen azterketari, halako moldez non hizkuntza horretan idatzitako obrek kotizazio handia iritsi zuten antzinako liburuen merkatuan. Atzerrian sorturiko nahiko hizkuntzalarik euskararen gramatikak zirriboratu eta are burutu ere egin zituzten. Duvoisin kapitainak Mauleko Sallaberry notariari idatzitako gutunean erantzuten zion Axularren Gero ale bat zenbat balio ote zezakeen galderari, esanez latin, grekera eta frantsesezko liburuen antzinako argitalpenak Parisko enkanteetako prezioen arabera kotizatzen ziren bitartean, "euskal liburu zaharrekin gutziz alderantzizkoa gertatzen da. Bibliofiloak eta bibliomanoak liskartu egiten dira horiengatik", eta ondoren salmentako zifra astronomikoak aipatzen ditu¹. Beste aipamen interesgarri bat Duvoisin berarengandik bildu dugu, Luis Luziano Bonaparte printzeari idatzitako gutun batean².

Horregatik guztiagatik, Antoine d'Abbadie ez da XIX. mendeko gizon original eta berezizat hartu behar, baizik eta bizi izan zen garaiko zientzia eta kultura alorreko ardurei erabat erantzuten zizkion gizontzat, nahiz eta haren izaerak eta ekintzek, inguruko gehienekin konparatuz, oso desberdin agertarazten diguten.

Ideologiaren ikuspegitik oso kontserbatzailea izan zen baina horretan ere ez zen itxieria eta aldaezintasunaren patroik jakinen barne sartzen, berak bezala paisaia, jende eta ohitura anitz ezagutzeko parada izan duen pertsonari hobeto doakionez.

Gure pertsonaia ez zen garaiko pentsamolde misogino nagusitik aldentzen: gutxienez emakumeez zuen irizpideak, oraino oso gazte zela adierazia, ez du duda-mudan ibiltzeko biderik ematen. 22 eta 25 urte bitartekoa zela, berak kontatzen duenez, Britainiarako bidaiari Quimper-eko apezkikuari egindako bisitaldian haren eta beste zenbait apezzen aurrean txantxetan ari izan zen Jainkoari eskatzen ziola "gizonak txanpinoi gisa sortaraz zitzala, berez".

1. DARANATZ, J.B.: "Correspondance du Capitaine Duvoisin", 202. gutuna. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 24. urtea, XXI. I., 343. or.

2. Op. Cit., 273. gutuna, XXII. I., 69. or.

Bertan zegoen batek gaineratu zuen Jainkoak bere obra guztiak bedeinkatu zituela eta onak aurkitu, salbu eta emakumea³. Gero, Abbadiek emakumeen txorakeriei buruz Miarritze ondo-ko andere batekin izandako solasa aipatu zuen, non emakumeak bere desira adierazi zion: "kristautasuna salbatzeko neskarik gehiago sor ez zedin"⁴. Jenero femeninoaren aurkako jarrera hark ez zion eragotzi, jadanik 49 urte zituela, Virginie de Saint-Bonnet liondarrarekin ezkontzea eta, itxuraz, elkarrekin ongi konpontzea: harekin batera bidaiara asko egin zituen, Abisiniarako bidaiara Abbadiek ibilitako paisaiak ezagutaraziz eta, gainera, emaztea harekin zihoan Euskal Jai askotara⁵. Orobat elkarrekin egin zuten Haitirako bidaiara (1882-1883)⁶.

Ideia kontserbatzaileak zituela, Hendaiako alkatea izan zen 1871n. Zuzenki esku hartu zuen Hegoaldeko politikan karlisten kausaren alde ekinez, Uribarren izeneko batengandik dirua jaso eta haientzat armak erosi zituela⁷. Madrilen zegoen X. Verdú-ri igorritako gutun batean aitortzen zuen "euskaldun bezala eta Euskal Herrian, karlista naiz"⁸.

Abbadie katoliko praktikantea izan zen eta euskal kulturaren giroan mugitzen ziren guz-tien antzera, elizgizonekiko harremanak estuak eta jarraikiak izan zituen. Euskararen salba-zioari begira, apaizengan ezarria zuen bere uste ona⁹. Hala ere, ez da horren ezaguna haren anaia Charles protestantea zela, ia segurtasun osoz, emaztea eta seme-alabak hala baizire-en. Madame Charles d'Abbadie d'Arrastek erlijio protestantea praktikatzen zuen ezbairik gabe. Emakume honen inguruan egun gure esku dagoen bibliografiak zenbait huts zabaldu ditu eta horiek zuzentzen saiatuko naiz ondoren. Madame Van Eys honela dioskunez: "Gaur bertan Charles d'Abbadie jauna eta haren anderea ezagutu ditugu gu ostatuz gauden etxe berean baitira... afaldu ondoren Abbadie anderearekin batera ibilaldira bat egin dut, debo-zio protestante garaiaren ideiak ditu baina ontasunak eta karitateak argiturik"¹⁰. Lisette, Abbadie senar-emazteen alaba 1902an hil zenean, Edgard Monod artzain protestantearen ardurapean egin ziren hiletak. Urte bat lehenago Charles aita hila zen eta artzainak bertan izana oroitarazi zuen¹¹. "Le Protestant Béarnais" kazetak hil-oharra argitaratu zuen¹².

3. DARBOUX, Gaston: "Notice Historique sur Antoine d'Abbadie". Institut de France. Académie des Sciences, Paris 1907, 10-11. orr.

4. Ibid.

5. URQUIJO, Julio: 1928. urteko "El Pueblo Vasco" kazetako artikulu batetik hartua, José ARANAK aipatua; "Antoine d'Abbadie. Biografía", *Euskalerriaren Alde*, XIX. I., 1929, 156. or.

6. DARANATZ, J.B.: op. cit., 271. gutuna, XXII. I., 1931, 68. or.

7. E.N.P. 21746 fondoa, Manex GOIHENETXEK aipatua: "A. Abbadiaren nortasunaren atzetik", *Elhuyar*, 73-74. zk., 7-11. orr.

8. Ibid.

9. Ibid. 10. or.

10. VAN EYS, Mathilde: "Second voyage au Pays Basque en 1868 d'après mon journal du 1er. Juillet au 7 Octobre", *R/ÉV*, 1927, 3. zk., 21. urtea, XVIII. I., 527-543. orr.

11. "Atzo egin zuen urte bat bildurik geundela ordu berean sala honetan, M. Charles d'Abbadie d'Arrast etxeko nagusiaren gorpuaren inguruan. Haren alargunak adierazi zidan, urteurren mingarri honen kariaz, oroitzapen-zerbitzu bat egin nahi zuela, eta prest nintzen haren eskaerari erantzuteko... Hala beraz, badugu oroitzapen-zerbitzua!... baina, bai ustegabeko zirkunstantzietan berriro elkartzeko garelako!... Hara non oroitzapen bat ohoratzeko bakarrik eta igarotako dolaugatik otoitz egiteko bildu behar genuen sala honetan, beste hilkutxa bat aurkitzen den eta oraingo doluarren aurrean aurkitzen garen. Aitaren ondoren, alaba!... "Edgard Monod jn. artzainaren hitzak, Lisette d'Abbadie d'Arrast andereñoaren hiletan Echauzen (Baigorri) 1902ko Abenduaren 27an", *Sophie-Caroline-Lisette d'Abbadie d'Arrast, Châlons-sur-Saône*, 1903, 3-9. orr.

12. "Le Protestant Béarnais", Orthez, 1902ko Urtarrilak 17, Léon Bost, Salies-ko elizako Artzainak sinatu hil-berria.

Gainera, nahasi egiten dira Madame d'Abbadie eta haren alaba Lisette, autore guztiak pertsona bat direla uste baitute. Jon Bilbaoren Eusko Bibliografian irakurtzen dugu: "Abbadie d'Arrast, Mme. Charles d' (Sophie Caroline-Lisette) (Echauzeko Anderia) (1859-1902)". Ondoren, amaren artikuluei buruzko erreferentzia bibliografikoak datoz, gehienak "Biarritz-Thermal" aldizkarian argitaratuak eta batez ere ezagutarazi duen liburua: "*Causeries sur le Pays Basque: la femme et l'enfant*", (Paris 1909)¹³. Egileren batek liburu hau Antoine d'Abbadieren emaztearena dela idatzi du. Nahasmena erabatekoa da beraz. Charles d'Abbadieren emaztea ezin sortu zen 1859an eta, ikusi dugunez, 1902an hil zena haren alaba zen. Van Eys andereak, 1868an, Abbadie senar-emazteekiko topaketa kontatzen jarraitzen du: "Abbadie jaun-andereak beren hiru haurrekin daude hemen, bi neska eta mutiko bat"¹⁴. Nesketako bat, ezbairik gabe, Lisette zen, 1859an jaioa zena eta orduan 9 urte izango zituena. Mme. D'Abbadieren ustezko heriotzaren ondoren, liburuaz gain (1909) berak idatzitako 8 artikulua gutxienez agertu ziren "Biarritz-Thermal" hartan. Lisette alabak ere artikulua idazten zituen baina beti izenordeak erabiliz. Bai batak eta bai besteak emakumeen eskubiak defendatzen zituzten beren idazkietan.

2. ANTOINE D'ABBADIEREN EGINKIZUNA EUSKAL KULTURAREN BERPIZKUNDEAN

Euskal Kulturaren Berpizkundan Abbadieri dagokion tokia euskal kulturarekin zerikusia duten bi jarduera nagusiek markaturik dago, nahiz alor horretan buruturiko bakarrak ez diren. Azken hauen artean, aipatu besterik ez dugu egingo Agustin Chahorekiko elkarlana euskal gramatika bat moldatzerakoan, "*Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*", (Paris, 1836), eta hainbat aldizkaritan argitaratu beste zenbait lan¹⁵. Alabaina, haren bi eginkizun nabarmenenak izan ziren, alde batetik, euskaltzaleen arteko harremanak bideratzea, haien proiektzioa zabaltzea haien obrak Parisera eta Londresera ateratzen baitzituen eta, bestetik, beste ezeren aurretik, Euskal Jaiak deituko dituguneren asmatzaile, bultzatzaile, antolatzaile eta mezenas gisa izan zuen jarduera, hasieratik jadanik ez baitziren Lore Jokoen literatura izaera hutsera mugatu.

Iparraldeko Euskal Kulturaren Berpizkundearen hasieran garrantzi handieneko bi pertsonaia izan ziren: Antoine d'Abbadie eta Luis Luziano Bonaparte printzea.

2.1. 1877 Urtearen aurreko egoera: Iparralde eta Hegoalde, bi mundu desberdin

Euskararen iraupenak Hegoaldean planteatzen zituen arazoak, nekazaritza eta artzaintza bizitzarekin loturiko mundu tradizionalaren suntsipenaren paraleloan, ez ziren antzematen iparraldeko probintzietan. Itxuraz gizarte ia higiezinaren baten aurrean gertatzen gara, aldaketa urri jasaten duena. Euskara ez zen, XIX. mendearen erdialde horretan, desagertze prozesuan abiatu eta praktikan industrializazioak bazter utzia zuen Iparraldea. Industriarekin loturik doan eta baserriko jendea hirira eramanez ohi duen hirigintza prozesua ere ez zen gauzatu bertan. Baiona da hiri bakarra: portua eta kanonigoak, toxokolategileak eta merkataritxiak biltzen dituen burgo txikia alegia. Baserri aldetik, beti bezala, neska batzuk etortzen dira zerbitzatzera. Gainerako probintzia-hiriburuak (Maule, Donibane Garazi) ez dute hiri ezauga-

13. Bada gaztelerazo itzulpena: "Charlas sobre el País Vasco. La mujer y el niño". Auñamendi Bilduma 7. zk., Zarautz 1959.

14. VAN EYS, Mathilde: op. cit.

15. Euskal kulturari buruzko haren lanei buruzko erreferentzia osoa in ARANA, José, op. cit., 157-158. orr.

rririk. Exodoa bada, bai, baina ez baseritik hirira, baizik eta baseritik Ameriketara. "1846tik 1872ra, hau da, hogeita sei urtetan bakarrik, Behe Pirinioetako departamentuak 39.160 biztanle galdu zituen, biztanleria osoaren %9 baino gehiago. Erortze hori ez dator heriotzen eta jaiotzen arteko desorekatik, aldi horretan bigarrenak lehenbizikoen gainera ibili baitziren beti"¹⁶. Francisque Michelek hainbat kausa ikusten du emigrazio horretarako, hala nola derri-gorrezko soldaduzkari ihes egiteko nahia, aberasteko irrika eta abentura izpiritua¹⁷. Odoluste hori benetako zoritxartzat hartzen zuten bertakoek eta hori sendo islaturik agertzen da Iparraldeko literatura guztian, Lore Jokoetako gai kuttuna delarik.

Herrialdea txikia, pobrea, erlijiosoa, tradizionalista eta kontserbatzailea da. Baina ez ohartu gabeetarikoa. Aitzitik: modan dago. Humboldt eta erromantikoengandik, euskalduna bezalako herri batek osagarri guztiak dauzka bere baitan jakinmina pizteko alor guztiz desberdinetan. Zientziek, XIX. mendean azalerazten diren zientzia berriek, ikergaitzat hartzen dute. Ikergai kutsatu gabea, gainerako guztien desberdina den hizkuntza batean mintzo dena eta laborategiko analisi xehea egiteko bildu beharko dena. Ez du hizkuntza originala bakarrik, baizik eta antzinako antolakuntza politiko eta gizarte antolakuntzagatik ere nabarmentzen da. Politikaren aldetik 1789ko Iraultzak Errepublika osoarekin berdindu bazuen ere, bertako gizarte eta familia antolakuntza, Pirinio mendikate osoan hedatua zena, ikergai gertatu zen Soziologia modernoarentzat, gehien ezagutarazi zuena Le Play izan zelarik¹⁸. Euskaldunek, haietarik kultuenek bederen, bazuten bere sortu interesaren berri. Goian aipatu Michelen liburua, "Le Pays Basque..." (Paris 1857), argitaratu zelarik, Dassance kanonigoak obraren goraiamena egin zuen "Le Messenger de Bayonne" kazetan, honela zioela: "Zenbat eskertuko diogun, batez ere gutaz eta gure Herriaz egunean egunean esaten diren tontakeriak geldiarazten baditu! Bidaiariak, turistek, dramagileak, atalkako nobelagileak, historialariak, eleberrigileak, pintoreskoaren eta tokiko berezitasunen zaleak gu ezagutarazteko lanari ekin diote eta sekula ez gaituzte gutxiago ezagutu haien narrazioak, deskripzioak, inpresioak irakurri ondoren baino"¹⁹.

Euskal Herriko frantses alderdian oraino gutxi mugitzen bada ere, Elisée Réclus-ek 1867an "Euskaldunak, badoakigun herri bat" argitaratu zuen²⁰.

Iparraldeko berpizkunde mugimenduaren hastapenen ezaugarriak aztertuz gero, ezin esango dugu, Hegoaldean bezala, erreakzioa bat dela, ia beti estua eta beti mindua, hizkuntzaren begien bistako desagertzearen aurrean, harekin batera euskal herriaren nortasunaren definiziozko ezaugarriak aienatzen direlarik. Haien iraupena bideratuko duen irtenbide bakarra politika alorrekoa da: Foruak. Iparraldean ez dugu halakorik ezer aurkitzen. Kultura Berpizkundearen hastapenak garaiko izpiritu erromantiko, folklorezale eta zientzilariarekin

16. GARAT, Jacques: "Emigrants basques", *Bulletin d Musée Basque*, 148. zk., 2. hir., 1997, 69-90. orr.

17. MICHEL, Francisque: "Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique", Facsimile arg. ELKAR, Donostia, 1981, 193. or.

18. LE PLAY, F.: "L'organisation de la famille selon le vrai modèle signalé par l'histoire de toutes les races et de tous les temps", Paris 1871.

19. Pierre LAFITTEK aipatua, Le Pays Basque... liburuaren facsimile argitalpenaren hitzaurrean.

20. "...antzinako Euskarioak ez dira lehen izan zirenak: haien izaera nazionalaren ezaugarriak ahulduz doaz egunegun. Zentralizazio administratiboak alde batetik Parisi eta bestetik Madrili loturik dauka, hizkuntzaren erabilera higatu da kanpotarrekiko harremanetan eta batez ere interesek eraldatu dituzte non herri honen itxura eta ohiturak halako moduan non, horiek ikusirik, galdetzen duen gizon hauek etorkiz, historiaz eta hizkuntzaz Europako antzinako biztanleen guztiz desberdinak ote diren". RECLUS, Elisée: "Les basques. Un peuple que s'en va", *Revue des Deux Mondes*, XXXVII. urtea, LXVIII. I., 1867ko Martxoak 1.

mamiki loturik daude. Zenbait euskaldun, apaizak gehienbat, hizkuntza, funtsean hizkuntz mintzatua zena, bildu eta sistematizatzen hasi ziren. Lehen gramatikak eta hiztegiak agertu ziren. Eta aldi berean, dena biltzeko lehia. Kontua zera zen, ordura arte idatzitako guztia biltzea, baita herri musika eta kantuak. Horrekin batera, elezaharrak, ipuinak, sinistekak eta ohi-turak bildu beharra zegoen. Hori guztia, modernitateak European eragindako astinaldiaren ondorioz loratu zen korrante folklorezalearen barne.

Mendeko zientzia izpirituaz ari bagara, ohartarazi beharra dago euskararen jatorriaz eta bilakabide historikoaz erabiltzen ziren askotariko interpretazioak azientifikoak eta fantastikoak zirela beti ere. Francisque Michel bere obraren II. kapituluan, "L'escuara ou la langue basque"²¹, teoria horien kritika zuzena egiten hasten da eta, guztiz korrante nagusiaren aurka, bertakoen eta kanpokoen artean hainbat defendatzaile biltzen zuen vasco-iberismoa delakoa baztertzen du, eta euskararen alderdi misterioitsuak hizkuntzalari gutxi-asko profesionalen artean sortarazten zituen interpretazio bitxi-xelebreak, zientzia-zorroztasunik gabekoak, abuiatzen ditu aldi berean. Hala, ameskeriatzat hartzen ditu euskara hebraierakin edo fenizierarekin, Afrikarekin, Kaldeako hizkuntzekin lotzen dituen teoriak, eta Humboldtten aurka ere jotzen du²². Ondoren, alabaina, Michel bera nahasi egiten da eta Darrigol apezaren bidea hartzen du²³, euskal hitzen erroak –zer gutxiago– Bibliarekin lotzen dituela.

Francisque Michelen obra dudarik gabe 1876. urtearen aurreko garrantzitsuena da eta ia bakarra bere sailean. Folklorezaleei interesatzen zaizkien Euskal Herriaren alderdi guztiei buruzko konpilazioa da, garai horretara arte ezezaguna zen ikuspegi orokorra ematen duena. Orobat, Sallaberry, Mauleko notariak euskal herri kanten bilduma²⁴ argitaratu zuen 1870ean. Geroxeago, Cerquand-ek bildutako elezahar eta herri ipuinak eman zituzten argitara²⁵.

XIX. mendearen Erdiko hamarraldi hauetan eta orain arte adierazitako baldintzen artean, euskararen lantzaile eta ikerleak loratu ziren Iparraldean, apaizak gehienbat. Halako inflexio edo aldaketa bat gertatzen dela antzeman daiteke ordura arte euskaraz idazten zuten apaizen eta aldi horretan egiten dutenen artean. XIX. mende artean elizgizonek sortu euskarazko produkzioari erreparatuz gero, salbuespenak salbu (Larramendi horietako bat izan daiteke, baina ez bakarra), libururik gehienak katekesi eta erlijiozko kezkek eraginda idatzi zituzten, eta ez literaturaren alorreko kezkek eraginda. Hots, apaizek edo fraideek idatzi edo itzuli zituzten libururik gehienak fededunei beren hizkuntzan mintzatzearren egin ziren, fededun haiek ulertzen zuten hizkuntza bakarrean, dotrina emateko, otoi-tza eragiteko: ardurua erlijio-soa da. Baina XIX. mendean euskara lantzen zuten elizgizonen artean antzeman dezakegunez, batzuek literatura helburuak, edo maizago linguistikoak, zituzten idazteko, artzain eginkizunetik at, edo hari gaineraturik bederen. Adibide gisa, berorien arteko zenbait aipatuko dugu hemen. Hiribarrenek 1853an *Eskaldunac* argitaratu zuen, obra horretan ohi-turak deskribatu eta Euskal Herriari buruzko hainbat datu ematen zituela. Harriet eta Dassance apaizek Haranederren *Testament Berria* argitaratu zuten 1855ean. Munta handiagoa du Intxauspe kanonigoak (1815-1902), Bonaparte Printzearen kolaboratzaile ezinago zuzena: berak irakatsi zion euskara, bai eta San Mateoren ebanjelioa eta Apokalipsia Zuberoako eus-

21. MICHEL, Francisque: op. cit., 7-28. orr.

22. Ibid. 11-12. orr.

23. "Dissertation critique et apologétique sur la langue basque", par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne, Baiona, u.g.

24. SALLABERRY, J.-D.-J.: "Chants populaires du Pays Basque", Baiona 1870.

25. CERQUAND, Jean-François: "Légendes et récits populaires du Pays-Basque", Paris, 1875-1882, 4 lib.

kalkira Printzearentzat itzuli ere. Haren obrarik garrantzitsuena, dudarik gabe, *Le Verbe Basque* izenburukoa da, Printzeak argitaratu zuena. Mendearen erdialdeko Iparraldeko euskaltzaleen artean pertsonaia laikoak ere agertu ziren: Chaho originalena eta distiratsua izango zen; harekin batera Duvoisin, Dasconaguerre, Archu eta Elissanburu aurkitzen ditugu, besteak beste.

Orain artean burutu zirriborroaren arabera, hizkuntz azterketak eta folklorismoa ziren XIX. mendearen erdialde honetako Iparraldeko euskaltzaleen ezaugarriak bitartean, Hegoaldeko euskaltzaleen guztiz bestelako oinarriak ditu. Mugaren alde bietako euskaltzaleen arteko harremanik eza kontuan hartu beharreko elementua izateaz gain, euskaltzaleen agerpenak guztiz bide ezberdinak hartu zituen. Goian aipatu bezala, Euskal Herriko Hegoaldean euskaltzaleen politika izaerako plantemenduen bidez azaldu zen: foralismoak, foruen erreibindikazioak ideologiaz erabat kutsaturiko literatura baten sorreran esku hartu zuen. Literatura horrek euskaldunaren definizio-oinarriak eta berezitasunak ezartzeko xedea hartuko du, begiak mito eta elezaharretako iraganera zuzenduz, halakoek literatura baino askoz haratago doazen argumentuak ematen dituztelarik. Eleberria, askotan historikoa, elezaharra, ipuina eta olerkia, funtsean erromantze erakoa, izan ziren literatura foruzale horretarako euskarri eta bideak, eta haren ingurunea foruena baino askoz zabalagoa zen eta haren inguruan moldatu zen tradizioa Historian errotu eta gaur arte iritsi da, sektore jakin batzuetan partez indarrean dirauelarik.

Espainiako Euskal Herriko literatura foruzalea landu zutenak, hau da, euskal tradizioaren –baina ez historiaren– sortzaileak, aipatu aurretik, bi Karlituden arteko aldi honetan (1840-1870) ezinbestekoa dugu Agustín Chaho nabarmentzea, tradizio horren aitzindari eta abiarazlea, Iparraldeko euskalduna, hain zuzen ere, baina Euskal Herriaz ikuspegi orokorra duena eta Hegoaldeko arazo politikoetan sartzen dena. Pertsonaia erakargarri eta enigmatikoa hau ikerketa askoren gaia izan da eta hala izaten jarraituko du, zeren eta bere alderdi antzeko haren pentsamenduaren eta obraren interpretazio askotarako bide ematen baitute. Chaho, besteak beste, masoi, akрата, errepublikano, abenturazale, gogargitu, eta argikusleztzat hartua izan da. Vinsonek bere *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris 1891) dioenez, hileta elizkizunik gabe ehortzitako lehen euskalduna izan zen, hau da, harena euskaldun baten lehen hileta zibila izan zela. Alabaina, aurreko beste batena ezagutzen da: Juan Antonio de Olabarrietarena (Mungia 1763, Cádiz 1822). Clara-Rosa ezizenez sinatzen zuen Olabarrieta honek, idazle eta abenturazalea ere, menturazko bizitza izan zuen eta Cádizko kartzelan amaitu zen, haren hilotza, berak eskatu bezala, lagunek aulki batean eserita, luma bat eskuan, hiri osoan zehar paseatu zutela²⁶.

Chahok era askotako obrak idatzi zituen, kazetak sortu zituen, politikan esku hartu zuen, baina literatura foruzalearen abiatzailearen ikuspegitik haren *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835) azpimarratu beharra dago batez ere, Parisen 1836an argitaratua, bai eta hain asmakari emankorra izan den Aitorren elezaharra, Baionako *L'Ariel* kazetan argitaratua. “Ez du inor harritu behar Chahoren teoria bitxiak, begien bistako heterodoxia gorabehera, foruzale espainiar-euskaldunek, katoliko fundamentalistak gehienbat, ongi hartuak izateak”²⁷. Eta ez bakarrik erlijioari doakionez, baizik eta politikaren aldetik ere, Chaho karlismoaren aldeko agertzen da, mugimendu hori Euskal Herriaren askatzaile gisa aurkezten duela, antzinako euskal konstituzioa, hau da, Foruak iraunarazteko borrokatzen baita.

26. AZCONA, J.M.: “Clara-Rosa, masón y vizcaino”, Espasa-Calpe, Madril, 1935.

27. JUARISTI, Jon: “El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca”, Taurus, Madril 1987, 84. or.

Izan ere, foruen auziaren inguruan biratuko du politika eta pentsamendu guztiak Hegoaldeko Euskal Herrian. Hortik dator Frantziako probintzietatik bereizten duen distantzia, haiek ez baitzuten arazo hori. Chahoren jarraitzaile guztiak Hegoaldeko probintzietakoak dira. Foruzaleen literatur gailurra Navarro Villosladaren *Amaya* eleberria da, aipatzen ari garen garaian idatzia baina geroago argitaratu zena²⁸. 1851n José María de Goizuetaren *Leyendas Vascongadas* argitaratu ziren, autore hori literatura foruzalearen abiatzailetzat eza-gutua delarik. Jenero anitz erabili zuen Antonio de Truebak eta eragin handiko idazlea izan zen, foru-literaturaren alorrean *Jaun Zuria*, Bizkaiko lehen Jauna, elezaharra haren obrarik gailena delarik. Juan E. Delmas inprimatzaile, kazetari eta *Irurac-Bat*-eko sortzaileak ere elezaharren jeneroa landu zuen; elezahar sorta bat argitaratu zuen eta haien artekoa den *Los hijos de Amandarro* izenburukoak literatura foruzalearen ezaugarri guztiak agertzen ditu. Azkenik, Juan Venancio de Araquistainek *Tradiciones Vasco-Cántabras* argitaratu zuen 1866an, elezahar bilduma horren bidez euskaldunen herria eta etorkia ezagutzen lagundu nahi zuelarik. Aipatu direnekin, ordea, ez da idazle foruzaleen zerrenda agortzen eta, besteak beste, honako arabar hauek aipa ditzakegu: Ramón Ortiz de Zarate, *El País Vasco-Navarro*-ko orrietatik *Laurac-Bat* edo Unión Vasco-Navarra delakoa zabaltzen zuena, eta Severo Manteli.

Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltzaleen arteko komunikazioa norbanakoen artekoa izana zen ordura arte, kontsulta zehatz eta puntualen ingurukoa. Errealagoa gertatzen da elkarren arteko harremanik, interesen adostasunik eta ezagutzarik eza nabarmentzea.

Elkarren arteko lehen harreman ez puntuala ezaldi batekoa, hats handiko hikuntzalaritza lan baten inguruan planifikatua izan zen eta Bonaparte Printzeak lehen lankideekin egin zuten aurreneko bileretan kokatu beharra dago.

Luis Luziano Bonaparte Printzea, Napoleonen anai baten semea, Abbadie bezala, bizi izan ziren mendeko koordinatueta guztiz egokiro kokatzen diren horietarikoa da²⁹. Gizartean zuen egoera berezia eta, Napoleon III.a Enperadorearen familiartekoa izanik, Bigarren Inperioaren urteetan (1852-1870) jaso zuen sari mamitsuak ahalbideratu zion Kimika, Mineralogia eta batez ere Hizkuntzalaritza ikasketak egitea, euskara izanik arreta, ardura eta dirurik gehien hartu zion hizkuntza. Lan eta argitalpen ugari finantzatu zuen; premia zuten lankideei ordaindu zien eta lanak ordaintzea eragabekeriaz hartuko zutenekin, hala nola Bruno Echeniqueren kasuan, lankidetzaren opariren bidez ohoratzen saiatzen zen. Bigarren Inperioa erortzean (1870), diru-estuasunez bizi zela, ezin izan zituen euskararen inguruko ikerketak ez argitalpenak finantzatu; hortaz, esan dezakegu Printzeak burutu zuen lana eta euskal hizkuntzalaritzarentzat suposatutako aurrerapena frantses politikaren gorabeherei estuki loturik gertatu zirela.

Itxura guztien arabera, Printzeak eta d'Abbadiek Londresen ezagutu zuten elkar 1855-56ko neguan³⁰. Zenbaiten ustetan, 1847. urtearen aurretik elkar ezagutu bide zuten, Printzeak urte horretan argitaratu hizkuntzalaritza liburuan euskarari buruzko arreta berezia

28. NAVARRO VILLOSLADA, Francisco: "Amaya o los vascos en el siglo VIII", Madril 1879.

29. RODRIGUEZ FERRER, Miguel, haren biografo klasikoetariko bat: "Los Vascongados: su país, su lengua y el príncipe Luis Luciano Bonaparte", Madril 1873. Obra honek Cánovas del Castilloren sarrera guztiz luzea dakar, bertan euskaldunen betebeharez dihardu, bai et gainerako espainiarrekiko pribilegiatuak ez izateko duten eginbideaz. Rodríguez Ferrer, andaluzar, Araba eta Bizkaiko Agintari Politikoa izan zen eta Printzea eta beste asko bezala, Euskal Herriatik kanpoko euskaltzalearen eredu da.

30. VILLALONGA, José: "Introducción a un estudio sobre Luis-Luciano Bonaparte y sus trabajos", *Eusko Yakintza*, VIII, 1953-1957, 52. or.

agertu zuelako; alabaina, 1837 eta 1849 bitartean d'Abbadie Etiopian zegoen. Abbadie Aragorryra itzuli zenean Euskal Herrira egingo zuen lehen bidaiara prestatzen hasia zen Bonaparte. Urte guztiz garrantzitsuak ziren haiek Euskal Kulturaren Berpizkundearen oinarriak jartzen ari baitziren: 1851n Abbadiek pilota partida bat antolatu zuen Urruñan eta 1853tik aurrera toki horretan berean eta beraren babespean, poesia lehiaketak, Lore Jokoak edo, hobe, Euskal Jaiak egin ziren. Abbadiek, bere herrialdean erroturik, Aragorry erositako zuen, nahiz oraino bertako gaztelu famatua eraikitzen hasi gabea izan. Lehiaketa horien antolaketa euskara lantzearen inguruan mugitzen zen mundu osoaren pertsonaia nagusia bihurtu zuen. Ez zen inor egokiagorik Printzea girotzeko, berari aholkuak emateko eta etorkizuneko lankideekin harremanetan jartzeko.

Londresen bi pertsonaiok elkar ikusi eta gutun batzuk gurutzatu ondoren, Printzea Baionara iritsi zen 1856ko Uztailaren 18an, bertan Abbadie berak, Duvoisinek eta Intxauspek harrera egin ziotelarik. Ezin liteke harrera batzorde esanguratsuetatik pentsatu. Charles d'Abbadieren bidez Bruno Echenique baztandarra (Urdazubi 1819) etorrarazi zuen Baigorriko Etxauz gaztelura; bertan, Abuztuaren 11n bilera bat egin zuten eta Echeniquek San Mateoren Ebanjelioa Baztango euskarara bihurtzeko ardura hartu zuen, handik harat Echenique Bonaparteren lankide garrantzitsuenetako bat bihurtuko zen. Zalantzarik gabe, Abbadietarrek bereganatu zuten Echenique Printzearentzat, horretan Claudio Otaegui zeri-kusirik izan ez zuela, esan denaren aurka. Eskuhartze hori arbuizatzeko nahikoa da jakitea Otaegui Zegaman jaio zela 1836an, beraz 1856an 20 urte zituen eta Maisu ikasketak egiten ari zen Gasteizen. Hondarribian atera zuen bere Maisu plaza 1858an. 1859an Lucía Richard Grandmontagnerekin ezkondu zen, emakume gazte hau alarguna zen eta Zegaman jaiotako alaba bat zuen, Amalia Lete Richard izenekoak. Gure historiografia guztiak azpimarratu egiten ditu Printzearen eta Otaeguien arteko harremanak eta Printzearen sarrera egile gisa izan zuen zeregina, koinatuak zirela esaten baita, bi ahizpekin ezkonduak. Egoera, ordea, konplikatuagoa da. Printzea, oso gaztea zela, Florentziako Mari-Anna Cechi-rekin ezkondu zen. Ezkontza hura ez zen zorionekoa gertatu, bereiz bizi ziren eta emaztea Bonaparteren oinetxean, Ajaccion, ezarri zuten bizitzen. 1850ean kokatu ohi dute bereizte ofiziala, baina Elizak ez zuen sekula onartu bereizketa hori eta haiek katolikoak ziren. Emaztea Ajaccion hil zenean, 1891ko Martxoan, 79 urte zituela, orduan bai, Printzea, gaixo eta zaharturik, 78 urte zituela, Otaeguien koinatarekin, Clemencia Richard Grandmontagnerekin ezkondu zen eta handik gutxira hil zen, urte bereko Azaroan, Adriatikoaren ertzean, iloba baten etxean. Ez zen, legearen aldetik, inoiz Otaeguien koinatua izan, beraz ordurako hila zegoelako, 1890ean 54 urterekin zendua izanik³¹.

Oraingoz ez dakiguna zera da, nola, noiz eta non ezagutu zuen Clemencia Richard, ez eta nolako lotura zegoen bien artean azken uneko ezkontza laster hura egiteko.

2.2. Lore Jokoak edo Euskal Jaiak

Orain arte ikusi dugunez, d'Abbadiek egiteko guztiz garrantzitsua burutu zuen mugaren bi aldeetako euskara lantzaileen arteko harremanak bideratuz, euskararen inguruko lan batzuk egin zituen eta, Printzeak bezala, euskal gaiari buruzko liburutegi oso konplutua bildu zuen, baita euskaraz idazten zen guztia bildu ere, Duvoisinekin laguntza guztiz estimagarriare-

31. Georges LACOMBEk harturiko datu biografikoak: "Basquistes contemporains. Le Prince Louis Lucien Bonaparte. Notice biographique et bibliographique" *RIEV* 1908. Dakartzan datuen iturburuei dagokienez, Vinson, Berlingo *EUSKARA* aldizkarian Hanneman-ek argitaratu artikulu bat eta M. Victor Collins-ek utzitako eskuizkribuzko oharak aipatzen ditu.

kin³², baina guztiarekin ere, batere zalantzarik gabe, Lore Jokoen antolakuntza izan zen Euskal Kulturaren Bepizkunderako egin zuen ekarpen garrantzitsuen eta ondorio handienak izan zituena. Abbadie jaunak antolatu zituena ez ziren Epaimahai batek aurretik aukeratu obra bati saria ematen zitzaion olerki-lehiaketa soilak. Halaber bapateko lehiaketa-saio bat ere egiten zen, hots, binakako bertso saioa. Jaiak, orobat, bazuen kirol osagai bat: pilota partida bat jokatzeko. Kantatzekoak izan behar zuten eta euskal doinuekin kantatu egiten ziren olerkien arteko lehiaketa horien helburua produkzioa sustatzea eta olerkariak idaztera bultzatzea zen. Gaiak deialdian adierazitakoak ziren. Lehen urteko gaia Ameriketarako Emigrazioa izan zen, arazo hau, gorago esan bezala, guztiz bizirik zegoela Iparraldean.

1853 eta 1878 bitartean, Abbadiek bultzatu eta babesturiko Euskal Jaiak Iparraldera mugatu ziren eta lehiakideak soilki Iparraldekoak ziren. Gaiei doakienez, herri kontuen ingurukoak direla antzematen da, baserritarren eguneroko kezketatik hurbil direla eta sortzen diren nekazaritza ingurune horrekin zerikusia dutela. Partehartzaileak nekazaritza bititza hiri-koaren gainean jartzen saiatzen dira, galduz doazen ohiturak deitoratzen dituzte: ezbairik gabe, hasieran deskribatzen genuen Iparralde geldu hartan ere aditzen dira modernitatearen oihartzunak eta haren ondorioak, biguindurik bada ere, hartaraino iristen dira. 1865eko Sarako jaietan saria Joanes Berjesen *Artzaingoa* olerkiak³³ lortu zuen saria, mendiko bizitzaren zoriona kantatzen duena. 1877an, Saran ere, Larralderen *Mutil Zaharra* sariztatu zuten³⁴, jenero femenino osoaren akatsen aurrean bere egoeran jarraitzea nahaigo duen gizon ezkon-gabe baten gogoetak azaltzen dituena. Misoginia arruntenaren eredu konplutua, beraz Epaimahaiak haren literatur merezimenduak kontuan hartu zituela pentsatu behar, nahiz eta alderdi horretatik ere tesi horretara jotzeko arrazoirik batere ez egon. Ondoko urtean, toki berean, Jean Oxalde bidarraitarrak bigarren saria lortu zuen *Khilo-egilearen Kantuak* izeneko obrarekin³⁵, gorularien desagertzea oroit-minez aipatzen dituena, goru egileak lanik gabe geratu direlarik. Oraingoan neska gazteak dira kritiken jopuntua, alferrak eta sakrifikatze gogo gutxi dutenak, aurrekoaren misoginiaren ildo beretik. Ezer berririk ez eguzkiaren azpian.

Jean Baptiste Elissanburu da Abbadieren Jaietan esku hartzen duten Iparraldeko olerkariak estimagarriena. Frantses Armadako militarra zela, Solferinoko gudu odoltsuan (1859) esku hartu zuen eta horrek iradoki zion 1864an sarituriko *Solferinoko itsua* oda. Haren obrarik ospetsuena, alabaina, 1861eko saria eraman zuena da, *Nere etchea*, non baserriko bizitza xumea eta gizonak desira dezakeen guztia aurkitzen duen familia barneko zoriona idealizatzen diren.

Duvoisinen gutunek datu zenbait ekartzen ditu Euskal Jai edo Lore Joko hauei buruz, bai eta izan zituzten gorabeheraz ere. Duvoisinen jarduera nekaezina eta erabat euskarari eman izana azpimarratu beharra dago. Berak burutu idatzi eta lan guztiez gain, Printzearen eta Abbadieren eskuineko eskua izan zen, haiekin eta haientzat lan eginez. Lehiaketak antolatzen zituen Abbadierekin batera eta Epaimahaietako kidea izan ohi zen. Abbadieri 1860an idatzitako gutun batean, honela mintzo da: "Atseginez ikusiko ditut lehiaketara bidaliko diren

32. DARANATZ, J.B.: op. cit. 178. gutuna, XXI. l., 1930, 81. or.: Duvoisinek Arana Aitari 1874ko Urriaren 22an idatzitako gutunean dioenez "haren bildumaren ondoren (Printzearenaz ari da) Antoine d'Abbadie jaunarena den garrantzitsuen da".

33. Euskarazko testua eta gazteleraizko itzulpena, *Revista Euskara*, II. l., 1879, 57-60. orr.

34. Ibid. 121-124. orr.

35. Ibid. 117-124. orr.

poesiak. Hala ere, esan behar dizut, guztiz oker izango nintzatekeela kopuru handian iritsiko balira. lazkoan, kazetetan zenbait artikulua, eskaera partikularrak egin eta epea luzatu behar izan genuen hala-holako emaitza lortzeko. Guztiz deitoragarria zait gure soraiotasuna eta ahal izan dudan guztietan aurpegiratu egin diet hori literatura nazionalerako lan baliosak egiteko gai diren gure apaiz gazteei batez ere. Gisa horretako inspirazioen pindarra, inongo kazetak eusten ez dionez, hutsean hiltzen da. Hilabetekari bat beharko genuke”³⁶. Kapitaina partehartze urriaz kexu da eta hutsean desagertzen dela ematen duen hainbeste lanen euskarri izango litzatekeen aldizkari baten planteamendua interesgarria da. Abbadiek babesten du baina Duvoisen alde batetik bestera doa, idazten du, iragarkiak jartzen ditu kazetetan, idazleak animatzen ditu. Intxauspek eta berak sariei buruzko kontseiluak ematen dituzte³⁷.

1878ko gutun batean Duvoisenek lehiaketara aurkeztu literatur produkzioa berrikusi eta balantzea egiten du. Oraingoan ez du partaidetza urria aipatzen aurreko gutunean bezala, baizik eta obren kalitate eskasaz kezkatu azaltzen da. “Ez dakit lehiaketara aurkeztu diren poesia gehien ahultasunaren ezkutuko kausaren bat ez ote den herriko plazan, herriko festaren egunean bildu jendearen aurrean kantatzeko egokiak egin behar hori. Horri erantzun dakiok esanez ezerk ez diola galerazten poetari gailur garaienetaraino igotzea; baina ez da gutxiago egia egoera horrek, izpirituaren oldarrari lagundu gabe, aniztan satira eta poesia errazera bideratu duela”³⁸. Azkenik, Duvoisen ondorioa baikorra da: “... ez litzateke zuzena esatea lehiaketek deus ohargarriak ez dutela ekarri. Aipaturiko pieza horiek, eta beste zenbait gehiagok, liburuska batean bilduz gero, noski, baliozko bilduma osatuko lukete”³⁹.

Laburbilduz, II. Karlistadaren aurretik honako hau bide zen egoera: Hegoaldean, literatura foruzalea lantzen zen, politizismoa, historia positibistaren hutsunea bete nahi duen elezaharraren garapen handia, Euskal Herriaren iragana asmatuz; Iparraldean, hizkuntzari buruzko lanen garapen handiagoa, bai euskaldunek eta bai kanpotarrek eginak. Herrialdearen alde bietako intelektualen arteko harremana noizean behin besterik ez zen gertatzen. Iparraldean Luis Luziano Bonaparte Printzearen lankide-taldearen moldatzea eta haren bidaiak harremanen hasieratzat har daiteke: Hegoaldeko lankide nabarmenen artean, goian aipatu Bruno Echeniquez gain, laster hilko zen P. Uriarte bizkaitarra (1869) eta Claudio Otaegui gipuzkoarra ziren.

Abbadieren Euskal Jaien oihartzunak ez zuen muga igaro oraindik. Iparraldean Jai horiek hitz neurtuzko poesia barnekoia, herrikoia eta ez politikoa ematen dute.

Hegoaldean, II. Karlistadaren aurretiko urteetan, Euskararen Akademiaren inguruko kezka agertzen da. Ildo horretatik mintzo zen Pablo Ilarregui nafarrak 1870ean⁴⁰. Ilarreguren iritziko Akademiak Bilbon izan behar zuen egoitza, Foru Diputazioaren babespean, eta ez dirudi inoiz konturatzen denik euskara Iparraldeko hizkuntza ere badela: “Zuzendaritza gune horretan arreta bereziz bildu beharko lirarteke egun ezagutzen diren lau probintzietako geografia eta topografia izenen zerrenda guztiz zehatzak, haien benetako gaztelaniazko esanahiarekin”⁴¹.

36. DARANATZ, J.B.: op. cit. 8. gutuna, XIX. l., 1928, 64. or.

37. Ibid. 48. gutuna, 449. or; 57. gutuna, XX. l., 1929, 180. or.

38. Ibid. 200. gutuna, XXI. l., 1930, 339-341. orr.

39. Ibid.

40. ILARREGUI, Pablo: “La lengua vascongada”, *El País Vasco-Navarro*, 2. zk., 1. urtea, 1870-I-23.

41. Ibid.

Urte batzuk lehenago Abbadiek ere Akademiaren premiaz ziharduen: "Euskal Akademia eratzeko zuren proiektuari buruzko ideiak gaur arte ezin burutu izana deitoratzen jarraitzen dut. Alabaina, definizio zehatzez hornituriko Hiztegi osoa izateko modu bakarra da... Zer beharko litzateke hain desiragarria den akademia hori eratzeko? Batzorde bat Baionan... Behin akademia eratu eta hilabeteko aldizkari bat izan ondoren bai departamenduan eta bai Estatuan halako harpide kopuru bat bildu ahalko genuke, bai eta laguntzaren bat seguruenik. Zergatik ez saiatu? Zuk nahi baduzu, jauna, zure lehen ideiak abiarazi, ene laguntza ekar niezazuke heldu den neguan..."⁴². Duvoisin beti prest euskararen alde lan egiteko. Akademia bat darabilte gogoan eta ez dituzte Hegoaldeko probintziak kontuan hartzen, Ilarrekuik Iparraldekoak kontuan hartzen ez zituen bezala.

2.3. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lehen elkarlanak: d'Abbadie eta Asociación Euskara de Navarra

Hegoaldean gerren arteko aldiak foruen aldeko sentimendua sendotu eta garatu baldin bazuen espekto politiko eta soziokultural osoan, Foruen desagertpenak, II. Karlistadaren ondorioz eta 1876ko Uztailaren 21eko Abolizio Legeak santzionaturik, krisi politiko sakona eragin zuen hiru euskal probintzietan. 1879 arte espezio-egoerak inprenta askatasuna ezabatu zuen, prentsan foruen errebindikazioa ezinezkoa eginez, hala probintzietan nola Nafarroan. Egoera horretan Madrilen *La Paz* egunkaria (1876-1878) sortu zen, Foruak defendatzeko helburu bakarrarekin, haren erredaktore eta lankideen artean euskal foruzaletasunaren pertsona garrantzitsu guztiak aurkitzen zirela⁴³.

Gerra aurreko urteetan Nafarroako Diputazioak bultzatu mugimendu bat sortu zen, lau euskal Diputazioak elkarretara hurbildu eta elkarren artean lan egitearen aldekoa. Lau probintzien batasuna aldarrikatzen zuen *Laurac-Bat* goiburua hedapen handia izan zuen.

Giro forzale eta baterakoi horretan, Nafarroan euskararen desagertze prozesua geraraziko zuen Elkarte sortzeko ideia piztu zen. Juan Iturralde y Suit, Arturo Campión, Nicasio Landa medikua eta Esteban Obanos apaizak ekin zioten lan horri eta 1877an, beste sei nafarrek batera, ASOCIACION EUSKARA DE NAVARRA⁴⁴ izeneko elkarte sortu zuten. Asociación honek bere helburua aitortzen du: "euskal-nafar hizkuntza, literatura eta historia zaindu eta zabaltzea, bertako legeria ikertzea eta herrialdearen ongizate moral eta materiala bidera dezakeen guztietan ahalegintzea"⁴⁵. 1877ko Abenduan, elkarreak aldizkari ez politiko bat argitaratzeko baimena lortu zuen. Asociación honen ideologia sakonkiro foruzalea gorabehera, askatasun eza eta probintziek zein Nafarroak jasaten zuten espezio-egoera zirela eta, ideologia hori ezin zuten publikoki agertarazi. *Revista Euskara* hura hilabetero plazaratu zen 1878 eta 1883 artean eta Euskal Kulturaren Bepizkundea bultzatu zuen lehen aldizkaria izan zen. Zazpi probintzietako euskaltzale ororen arteko lehen lotunea izan zen eta bizitza luzea izan ez bazuen ere, bidea urratu zuen ondoren etorri ziren agerkarientzat. Aldizkari hauek, José Manterolak Donostian sortu *Euskal-Erria* (1880-11918) batez ere, haren tokia

42. DARANATZ, J.B.: op. cit., XIX. l., 48. gutuna Antoine d'Abbadieri, 1862ko Abuztuak 20, 449-450. orr.

43. Gai honi buruz: CIAURRIZ BELZUNEGUI, Alberto: La abolición de los Fueros vascos a través de la prensa", Auñamendi, Donostia, 1976.

44. Asociación Euskara de Navarrari buruz, kontsultatu: ELORZA, ANTONIO: "Ideologías del nacionalismo vasco (1876-1937)", Haranburu, Donostia 1978 eta VALVERDE, Lola: REVISTA EUSKARAREN facsimilearen sarrera, 6 l., Eusko Ikaskuntza, Donostia 1996.

45. ASOCIACIÓN EUSKARA DE NAVARRA, Programa, *Revista Euskara*, I. urtea, 1. zk., 3. or.

bete zuten. Halaber, Fermín Herrán Gasteizen 1878an sortu *Revista de las Provincias Euskaras*; *Revue des Basses Pyrénées et des Landes* izenburukoa, Abbadiek bultzatua eta Ferdinand Lesseps abiarazia 1883an Parisen eta Vicente Aranak 1885ean sortu *Revista de Vizcaya* delakoa, XIX. mendeko Kultura Berpizkundeak suposatu zuenaren erakusgarri dira.

Hasteko, *Asociación Euskara de Navarra*-ko bazkide izateko Nafarroan edo euskal probintzietan sortua edo, Euskal Herritik kanpo sortua izan arren, euskal-nafarren umea izan beharra zen, baina berehala zabaldu zitzaizen bazkide-izaera Iparraldean sorturikoei, nahiz eta lurralde hartako bazkideen kopurua oso urria gertatu, kasik Asociación berak Ohorezko Bazkide izendatu zutenei mugatua. Ohorezko Bazkideen lehen zerrendan (16 guztira), Abbadie aurkitzen da, Belsunze Bizkondearekin batera, biok Iparraldeko ordezkari bakarrak direlarik⁴⁶. 1878ko Martxoaren 10eko Batzar Nagusian Abbadieren gutun bat irakurri zen; bertan euskal herri osoa batzeko gogoia adierazten zuen eta, hortaz, Lore Jokoak Nafarroako Mendialdean egitea pentsatua zuela. Gutun hartan, halaber, Duvoisin eta Intxauspe proposatzen zituen ohorezko bazkidetzat: horiek biak dira, berarekin batera, Iparraldeko euskaltzale-tasunaren muina, ikustena ari garenez. Batzar Nagusiak erabakitzen du aztertzea, Abbadie jakinaren gainean jartzeko, zein herri den edo diren egokienak Jaiak ospatzeko⁴⁷. Duvoisin geraezinak, ohorezko bazkide jadanik, Asociación-era idatzi zuen Iparraldean bazkideak egiteko ideiak ekarriz⁴⁸. Elkarteak batzorde bat izendatu zuen, Salvador Castilla lehendakariak eta Campión eta Iñarra jaunek osatua, Abbadierekin harremanetan jartzeko eta Jaiak antolatzeko⁴⁹.

Mugaren alde bietako euskaltzaleen arteko harremanak dagoeneko gertakariak dira, aldi berriaren ezaugarriak, eta horren aitzindariak Bonapartearen lankide taldea, Asociación Euskara de Navarra eta Antoine d'Abbadie aitzindariak izan ziren.

Euskarok beren *Revista Euskara*-ko aleak bidaltzen dizkiote Duvoisini⁵⁰ Iparraldean bazkideak egiten saia dadin eta aldizkariak bere lehen Liburuan (1878) Iparraldeko lehiaketetan saritu poesiak argitaratzen ditu, Abbadiek bidaliak, bai eta Duvoisinek bildutako atsotitzak eta euskal ortografiari buruzko artikulua txiki bat, Jean d'Olabiñarreren artikulua historikoa eta Cerquand 4 liburukitan⁵¹ argitaratzen ari zen bildumako bi euskal tradizio.

Elizondon ospatu ziren Jaien antolakuntzak harreman ugari eskatu zuen AEN, Abbadie eta Duvoisinen artean; bai Duvoisinen gutunetan eta bai elkartearen bileretako aktetan jarrai daiteke bide luze hau. Elizondoko programak zenbait berrikuntza aurkezten zuen Iparraldean ordura arte egindakoarekin konparatuz gero, literatur lehiaketa eta pilota partidetara mugatuak. Elizondon, haiei beste hauek gehitu zitzaizkien: danborjoleen saria, behirik ederrenarentzako saria eta "40 pezeta aizkora erabiltzen trebetasun handiena erakutsiko duenari, hartarako jarriko diren zuhaitz enborrak moztuz"⁵². Aizkolari dema hau guztiz berria da Iparraldeko euskaldunentzat. D'Abbadieri idatzitako gutunean, Duvoisinek bere harridura

46. AGN: Asociación Euskara de Navarra-ren Akta Liburua, 1877ko Azaroaren 15eko Batzarrea.

47. Ibid, 1878ko Martxoaren 10eko Batzar Nagusia.

48. Ibid, 1878ko Apirilaren 8ko Batzar Nagusia.

49. Ibid

50. DARANATZ, J.B.: op. cit. 197 eta 198. gutunak, XXI. l., 1930, 338-339. orr.

51. CERQUAND, Jean-François: "Légendes et récits populaires du Pays-Basque", Paris, 1875-1882, 4 lib.

52. "Fiestas euskaras de Elizondo", Revista Euskara, II. l., 155-156. orr.

agertzen dio: "Erreparatu diozu 40 liberako sari horri, aizkora hobekien erabiliko duenari ematekoa? Dudarik gabe, nekazariak beren tresnak egiten saia daitezten animatzea da kontua. Herri guztietan aurkitzen dira halako lanetan oso trebeak diren gizonak. Elkarrekin egurrezko piezak jarriko ditu lehiakideek proba egin dezaten. Ez nion erreparatu azken arau horri. Uste nuen aizkora bota behar zela grekoek diskoa jaurtituz zuten bezala, zeren ez baita joko ezezaguna gure euskaldunentzat hori, burdinezko palanka jaurtituz saiatzen dira eta. Aizkoraren ordea diskoa jarri beharko, istripurik gerta ez dadin. Aipatu dizkizudan bi joko horietarako bi edo hiru luis bidaltzeko tentazioa izan dut. Baina hobeki pentsatu dut, aurreten berrikuntza aski dagoelako. Gerorako geratuko da"⁵³. AENk, beraz, aizkora proba lehiakuskari gisa aurkeztu zuen lehen aldiz Elizondon, folklore pieza bat, euskal herri-kirol bihurtu zuen. Euskal Herria ongi ezagutzen zuen Duvoisinentzat erabat ezezaguna, baina ez AENren asmakari bat; AENk basotik atera zuen, bertan egurgileen arteko apustu gaia zen eta folklore bilakatu zuen.

Euskal Jaiak antolatzen eta bultzatzen mugaren bi aldeetan jarraitu zuen hil zen arte Antoine d'Abbadiek. Hego Euskal Herrian zenbait erakundeekin lankidegoarenpean; 1882 urtean Gipuzkoako aldizkariak bere organoa bihurtzen zen aldi berean. D'Abbadie hil zen urtean (1897) Frantziako *Académie des Sciences*, Endaiako Jokoak antolatu zituen, bere aldetik. Erakunde publikoen babespean, Euskal Jaiak ospe handia lortu zuten, lehiaketak eta sariak gero eta ugari eta urriagoak izaten, baina hasieratik zituzten ezaugarri nagusiak galdu gabe.

53. DARANATZ, J.B.: op. cit. XXI. l., 1930, 1207. gutuna, 349-351. orr.